PRENTSA OHARRA

Gasteizen, 2013ko urriaren 11n

ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK % 85 UGARITU DIRA IRAILEAN

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak enplegu-erregulazioko 111 espediente baimendu zituen irailean; hau da, 2012ko abuztuan baino % 85 gehiago, baina 2012ko irailean baino % 29 gutxiago. Eteteko erregulazio-espedienteak 59 izan dira, lanaldia murriztekoak 49, eta iraungitzekoak 3.

2013ko irailean baimendutako espediente guztietatik 76 aurreko baten jarraipena izan dira, eta 670 langileri eragin diete (% 81). Erregulazio-espedienteek 826 langileri eragin diete 2013ko irailean; aurreko hilean baino % 30 gehiagori, baina 2012ko irailean baino % 72 gutxiagori.



	Ene	Feb	Mar	Abr	May	Jun	Jul	Ago	Sept	Oct	Nov	Dic
2009	3.644	10.899	7.102	7.815	5.993	5.591	5.004	3.540	1.476	4.712	3.770	9.176
2010	3.944	4.999	3.130	2.731	1.721	2.724	3.899	2.230	1.670	2.356	1.572	4.450
2011	1.855	1.758	1.975	1.416	1.040	1.881	1.916	1.526	1.291	1.205	2.094	4.115
2012	3.215	2.998	3.598	2.649	3.128	3.654	3.722	1.778	2.937	4.471	2.019	3.260
2013	4.198	3.938	2.826	2.844	2.305	2.503	6.018	634	826			

Iraungitze kopurua 47 langile izan dira; hau da, 2013ko abuztuan baino % 57 gutxiago eta 2012ko irailean baino % 45 gutxiago.

Sektoreka, lan-erregulazio espedienteen kopurua bere horretan mantendu da nekazaritzan eta eraikuntzan, jaitsi egin da industrian eta pixkatxo bat igo da zerbitzuetan.



	Agrario	Construcción	Industria	Servicios
2009	3%	6%	72%	19%
2010	4%	11%	61%	24%
2011	2%	15%	49%	35%
2012	0%	16%	42%	41%
2013-09	0,05%	16,00%	40,20%	43,75%

Akordioen ehunekoa handia da oraindik, % 90etik gorakoa.



	Ene	Feb	Mar	Abr	May	Jun	Jul	Ago	Sept	Oct	Nov	Dic
2009	93	86	87	90	89	90	89	88	88	90	90	89
2010	85	90	88	89	88	87	84	90	90	87	91	91
2011	91	91	94	88	90	89	94	88	97	99	86	93
2012	91	91	90	89	90	90	90	91	94	87	89	93
2013-07	92	91	91	92	93	90	88	93	97			

Lan-erregulazio espedienteak arrazoitzeko kausen artean, eskariaren eta ekoizpenaren murrizketa da oraindik ere nagusia. Hori bai, bai bata bai bestea kausa ekonomiko eta finantzarioekin estuki lotuta daudenez, kasu askotan zaila izaten da bataren eta bestearen benetako pisua zehaztea.

Hauexek dira gehien kaltetutako eskualdeak: Arabako lautada, Bilbo Handia eta Donostialdea.







Egun, 22.460 langileri eragiten dieten 1.502 espediente daude indarrean; espediente horietatik 894 (% 59) aurreko beste baten jarraipena dira.





Indarreko enpleguko erregulazio-espedienteak guztira	**1.502**	**Indarreko EEEk eragindako langileak guztira**	**22.460**

OHARRA:

Enplegu Erregulazioko Espedienteen (EEE) estatistika osoa Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren webgunean ikus daiteke.